

ZAKARRONTZI INTELIGENTEAK

GURE BALOREZKO PROPOSAMENA

Zakarrontzi estilo berri bat proposatzeko asmotan gaude. Gure zakarrontzi inteligentearen berezitasuna honakoa da: zakarra bertara botatzean, zakarrontziak, trukean, tiket batzuk emango ditu, gainera, hauek eguzki panelak izango dituzte, energia modu jasangarrian eskuratu ahal izateko. Aipatutako tiketak trukatzuz gero, herriko komertziotan deskontuak lortu ditzakezu. Berrikuntza honen bitartez gure gizarteko behar bat asetuko genuke ingurumena zaindraz. Izan ere, gaur egun zikinkerri pila ikusi daiteke kaleetan eta hortaz beharrezkoa iruditzen zaigu hori aldatzea. Horrez gain, herriko komertzioetan erostea sustatuko genuke, herriaren ekonomia hobetuz.

Zakarrontzi inteligente hauek sektore publiko, alegia, udaletxeetara daude zuzenduak. Egia da, udaletxeak direla lehen inbertsioa egin behar dutenak herriaren alde eta beraiek hasiera batean ez dutela dirurik jasotzen, baina udalerrria txukun mantentzea eta ingurumena errespetatzen dutela azalduko lukete. Azken finean, gaur egungo apostua hori da-eta. Hori horrela, herritarrek, ingurumena txukuntzeko arrazoi bat gehiago izango lukete eta horretarako motibazio edo bultzada bat. Era berean, herriko komertzio txikiek ere jende berria irabaziko lukete beraien ekonomia handituz. '.

Hori horrela izanik, gure proiektuak honako alderdi/balio hauek sakontzen ditu bere horretan:

Nobedade edo ideia berritzaile baten aurrean gaude, gure inguruan ez dagoelako horrelako zerbitzurik. Hau da, herriko ekonomia sustatzen duen bitartean, gure ingurumena garbia mantentzen duena. Beraz, guk asmatutako produktu hau gure eta gainerako herrietan salduko bagenu, herriaren bizi kalitatea hobetuko litzateke.

Zakarrontzi inteligente ugari sortuko genituzke, bakoitzera zakar mota bat bota eta horrela erreziklatzeko. Horrez gain, zakar guzti hauek, herrietako gune ezberdinetan kokatuko genituzke, denon eskura egon ahal izateko eta horrela, gure produktuaren eskuragarritasuna sustatuko genuke.

Beste aldetik, gure herriko ekonomia hobetuko genuke eta baita guria ere. Izan ere, zakarrontziak erreziklatzeagatik emango dituen tiketen bidez, herriko dendetan deskontu izugarriak lortu daitezke. Hortaz, herrian diru gehiago mugituko da, guk prezio jasangarriago batzuk ordaintzen ditugun bitartean.

Balio kualitatiboari dagokionez, gure zakarrontziek diseinu simple, baina berritzailea izango dute. Horrela, kaleetan erraz txertatzeko aukera emango dute. Gainera, beraien sinpletasun horretan, erabilera ere simplea bilatzen saiatuko gara, edonork erabili ahal izateko. Horrez gain, prezioari aipamena egin behar genioke. Hasiere batean garesti itxura izan arren, ondoren inbertsio ona izango dela bermatuko dugu urteetan zehar erabili ahal izateko eta, aldi berean, errentagarria izatea ere bai. Beti ere ahalik eta prezio baxuena eta kalitate honena balantzatzuz.

Irati Zarranz, Irati Salgado, Anje Irastorza, Julen Garmendia eta Xabier Urigoitia.